

2009ko Memoria Sozioekonomikoa

**EUSKADIKO EGAB-K HOBKUNTZAK ESKATZEN DITU
PRODUKTIBITATEAN, LEHIAKORTASUNEAN ETA
BERRIKUNTZAN KRISIALDI EKONOMIKOA GAINDITZEKO**

- Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Batzordeak Memoria Sozioekonomikoa aurkeztu du gaur Eusko Legebiltzarrean, 2009. urteari dagokiona. Memoria horretan, euskal ekonomiaren jokabidea eta gizartearen egoera aztertzen dira, eta erakunde aholku-emaileko ekonomi eta gizarte eragileen baterako diagnostikoa eskaintzen du.
- 2009. urteko datuek krisialdi sakona dela erakusten dute. Ezaugarri kezagarriak daude hala nola lanpostuak galtzea, bereziki gazteenen langabeziaren igoera.
- Euskadiko EGABk produktibitatearen eta lehiakortasunaren arloko hobekuntzak eskatzen ditu, eta horretarako, hezkuntza, trebakuntza, ikerketa, berrikuntza eta teknologi transferentzia bultzatu behar dira. I+G-b-ko inbertsio publikoa handitzearen aldeko apustua ere egiten du, baliabideak euskal ekonomian egoera hobereanean dauden arloetan metatuz.
- Memorian, gizarte mailako bestelako gaiak ere aipatzen dira, esaterako: euskal biztanleriaren hazkundera etorkinei esker; zenbait gizarte-talderen zaurgarritasuna edo ingurumenaren arloko lorpenak eta esparru horretan betetzeke dauden erronkak.

Gasteiz, 2010eko azaroak 2. Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeko buruak, Juan Maria Otaeguik, Euskal Autonomia Erkidegoaren 2009ko Memoria Sozioekonomikoa aurkeztu du goizean Eusko Legebiltzarrean.

Memoria horretan, euskal ekonomiaren jokabidea eta gizartearen egoera aztertzen dira, eta erakunde aholku-emaileko ekonomi eta gizarte eragileen baterako diagnostikoa eskaintzen du. Beraz, eragileen baterako gogoeta lana da, denen artean adostua eta erkaturiko datuetan oinarritua.

2009ko datuek krisialdi ekonomiko sakona erakusten dute; izan ere, urte arteko tasetan aldaketa negatiboak izan dira urteko lau hiruhilekoetan, baina laugarrenean

nolabaiteko susperraldia ikus daiteke. Horrenbestez, jaitsiera ez da hain handia izan azken hiruhilekoan. Egoera ekonomiko zailak –gogorarazten du EGABk- ezinbesteko isla izan du lan-merkatuan eta langabezi tasen hazkunderan. Ondorioz, arriskuan jartzen ditu azken urteetan pobrezia kontrako borrokan eta ongizatearen aurrerapenaren arloetan izan diren hobekuntzak, EGABk ohartarazi duenez. Ildo horretan, kezkgarritzat jotzen du Batzordeak langabeziaren igoera, gazteei eragiten dien modua, eta ikerketa, jakintza eta berrikuntza sustatu beharra azpimarratzen du. Horretarako, ezinbestekoa da ez bakarrik enpresa-sarearen konpromisoa; Gobernuaren konpromisoa ere behar da, bereziki Gobernuarena eta zientzia eta teknologiaren arloarena.

Testuinguru horretan, Euskadiko EGABko adituek behar-beharrezkoa dela deritzote produktibitatearen eta lehiakortasunaren arloko hobekuntzak lortzea, eta horretarako, hezkuntza, trebakuntza, ikerketa, berrikuntza eta teknologi transferentzia bultzatu behar dira. I+G-b-ko inbertsio publikoa handitzearen aldeko apustua ere egiten du, baliabideak euskal ekonomian egoera hobereanean dauden arloetan metatuz.

Txostenarekin batera doazen gogoetetan, Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak uste du era horretako jarduerak funtsezkoak direla euskal ekonomiaren lehiakortasuna hobetzeko, betiere atzeralditik irteten diren ekonomia nagusien taldean sartu ahal izateko.

Euskadiko EGABren Memoria Sozioekonomikoak gizarte mailako bestelako gaiak ere aipatzen dira, esaterako: euskal biztanleriaren hazkundera etorkinei esker; mendekotasuna duten senideak zaintzeko ardura duten pertsonen zaugarritasuna; emakume ezkongabeen jaiotze kopuruaren igoera eta emakumeek seme-alabak izateko adina atzeratzea; airearen kalitatea hobetzeko edo igorpen kutsagarriak murrizteko ingurumen lorpenak. Aldi berean, bestelako gairen inguruko kezka ere agertzen du: ura galtzea banaketan edo energi iturri berriztagarrietatik datorren ekoizpen txikia.

2009ko Memoria Sozioekonomikoa

Laugarren hiruhilekoa: lehen datu positiboa

Urte arteko tasetan aldaketak izan diren azken urteen ondoren, 2009ko datuek egoera ekonomiko larria uzten dute agerian. Eustat-en arabera, aldaketa negatiboa da 2009ko lau hiruhilekoetan, baina laugarren hiruhilekoan jaitsiera txikiagoa da; beraz, beherakada ez da hain handia.

BPGaren jaitsiera

Krisialdiaren sakontasuna bereziki deigarria izan zen industrian, urte arteko %12,7ko jaitsiera izan baitzuen. Eraikuntza, bestalde, %3,6 jaitsi zen eta zerbitzuek %0,2 egin zuten behera. Lehen sektoreak, berriz, %3,6ko tasa positiboa du. Horrenbestez, urteko batez besteko %3,8ko jaitsiera izan da BPGean.

Langabezi kezkarria

EGABk kezkarritzat jotzen du 2009ko langabeziaren igoera. Iaz %8 egin zuen gora langabeziak. Eustaten Jardueraren gaineko Populazioaren Inkestako datuek erakusten dutenez, batez beste %3,6 jaitsi zen okupazioa 2009an. Hots, 36.000 lanpostu gutxiago izan dira.

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak kezka du batez ere gazteen lanpostuen galeragatik; izan ere, gazteen langabezi tasa %23koa da.

Ikerketa eta jakintzarako konpromisoa

Produktibitatearen arloan, Euskadiko EGABk funtsezkotzat jotzen du garrantzi handiagoa ematea hezkuntzari, trebakuntzari, ikerketari, berrikuntzari, zabalkuntzari eta teknologi transferentziari eta balio erantsi handiko eta kalitateko ondasunen eta zerbitzuen ekoizpenari. Horiek ezaugarri guztiak garatzeko, ezinbestekoa da ez bakarrik enpresa-sarearen konpromisoa; Gobernuaren konpromisoa ere behar da, bereziki Gobernuarena eta zientzia eta teknologiaren arloarena.

Arriskuan dauden taldeak

2009ko Memoria Sozioekonomikoak pobreziaren edo gizarte bazterkerian izateko arriskuan dauden taldeen egoeraz ohartarazi du. Ildo horretan, gazteak eta "zaintzaileak" nabarmentzen dira. Gazteei dagokienez, Batzordeak kezka azaltzen du krisialdiek eta gazteen egungo langabezi mailak (urteko %23koa, batez beste) pobrezi mailak igoarazten dituztelako Euskadiko gazteen artean.

Zaintzailea zaintzea

Zaintzaileak direla-eta, mendekotasuna duten senideak zaintzen diharduten pertsonak dira -gehienak emakumeak-; izan ere, zaintze-lanak ondorio txarrak ditu pertsona horien bizi-kalitatean: prekarietate handiagoa, ziurgabetasuna eta lanbide

jarduera garatzeko mugak, harremanek okerrera egitea beste senide batzuekin, gizarte-sarea murriztea eta osasun fisikoa eta emozionala okertzea. Horren aurrean, herri administrazioek erronka berri bati aurre egin behar diotela irizten dio EGABk: "Zaintzailea zaintzea" dela esan daiteke.

Biztanle gehiago

Biztanleen Udal Erroldak populazioari buruz emandako azken datuen arabera (2009ko urtarrila), eutsi egiten zaio Euskal Autonomia Erkidegoan 2000an hasitako goranzko joerari.

Zehazkiago, 2009an 2.172.175 lagun ziren (+%0,7 gehiago), hots, aurreko urtean baino 15.063 gehiago eta 2004an baino ia 57.000 gehiago.

Gora egin du etorkinen kopuruak

Euskal herritarren kopuruarekin jaitsiera atzerritar etorkinen saldo positiboarekin konpentsatu da, eta hazkunde horrek isla du atzerritarrek guztizko biztanlerian duten presentzian: 2009an atzerritarrek EHAE-N duten presentzia %7,3koa izan zen; 2008ko urtarrilaren 1ean, berriz, %5,4koa zen.

Gehikuntza hori Espainiak epealdi berean izan duen batez bestekoa baino handiagoa da (+%22,1), baina atzerritarrek Euskadin duten presentzia oso urruti dago Estatu osoko %13,8tik. Izan ere, erroldaren azken eguneratzean, sei milioi atzerritar baino gehiago daude Estatuan.

Emakume ezkongabeen jaiotzeen kopuru handiagoa

Bere urteko balantzean, bi alderdi nabarmentzen ditu Ekonomia eta Gizarte Araoetarako Batzordeak jaiotzeen inguruan: emakume ezkongabeen jaiotze kopuru handiagoa dagoela eta emakumeek seme-alabak izateko adinak gora egin duela.

2008an, 6.474 haur jaiotzeak ziren emakume ezkongabeengandik; hots, guztizkoaren %30,4 (%27 aurreko urtean). Izan ere, lau aldiz handiagoa da emakume ezkongabeengandik jaiotako haurren kopurua 1990az gero.

Ama nagusiagoak

EGABk nabarmendu egiten du emakumeek ama izateko adina gero eta gehiago atzeratzen dutela. Hala, 2008an seme-alabak izan zituzten emakumeen %76,5ek 30 urte edo gehiago zituzten. 35 urtetik gora ama izandakoen kopuruak ere gora egin zuen 2007arekin alderatuta (%33,6); 25 eta 29 urte bitarteko adina dutenena baino askoz ugariagoa da (%16,6).

32,4 urteko adina izan zen amen batez besteko adina, eta ama lehenerdiena, berriz, 31,3 urtekoa, 2007koaren antzeko zifrak. Estatistikaren aldetik, EAEn bizi diren ama lehenerdiak Europar Batasuneko zaharreneen zerrendaren buruan daude.

Ingurumenaz gero eta jabetuago

Memoriak nabarmentzen duenez, hobekuntza gertatu da azken urteetan ingurumenean, gizarte gero eta jabetuago dagoelako eta herri jarduerak burutu direlako.

Hobekuntza horrek eragina du airearen eta uraren kalitatean eta igorpen kutsagarrietan. Hala ere, EGABk kezka agertu du ingurumenaren gainean konpondu gabeko beste zenbait gairengatik.

Ura galtzea eta energia berriztagarrien urritasuna

Horien artean, banaketa-sareko ur galerak daude $-\%30,6$ egin du gora 2006 eta 2007 urte bitartean, egon dagoen ur guztiaren $\%17,6$ -; bildutako hondar-uraren bolumena jaiste edo energiaren azken kontsumoa handitzea.

EAEko energia berriztagarrien bidezko energia primarioaren ekoizpen urria ere nabarmentzen du oroitidazkiak; 2009ko eskariaren $\%5,3$ besterik ez da (Europako konpromisoa $\%20$ koa lortzean da 2020rako).

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak beharrezkotzat jotzen du biztanleria gai horiez jabeazteko lanean jarraitzea, ekoizpen-prozesu garbiagoak abiaraztea ahalbidetuz, ingurumena, gizarte eta ekonomia aldagaiak, teknologi berrikuntzarako laguntza, etab. behar bezala txertatzeko.